

OLERKIAK, IRUDIAK ETA MUSIKA

BIDEO-KLIPA



DBHko 3. maila. Hizkuntzen Tratatara Bateraturako materialak

HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA
PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS

DBHko 3. mailarako materialak / Materiales para 3º de E.S.O.

PROIEKTUA / PROYECTO: Bertsoz bertso.

UNITATEAK: **Olerkiak, irudiak eta musika. Bideo-klipa.**

UNIDADES: Verso a verso. Poemario colectivo.

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA: Teresa Ruiz
DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN:

SORTZAILEA: Itxaso Bernaola
AUTORA:

KOLABORATZAILEAK: M^a Inmaculada Marcos, Maribi Apraiz, Rakel Arrizabalaga,
COLABORADORES: Itxaropena Zaballa eta Hizkuntza eta Gizarte esparruko
Bigarren Hezkuntzako Aholkulariak.

Berritzegune Nagusia (Bilbao)
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

MATERIAL HONEN JABETZA EUSKO JAURLARITZARENA DA
MATERIAL PROPIEDAD DEL GOBIERNO VASCO

2009ko ekaina
Junio de 2009

Gaur egungo gizartean ezer egin baino lehen honelako galderak egiten dizkiogu gure buruari: Zertarako balio du honek? Zenbat kostatuko zait hori egitea? Zer etekin aterako diot nik honi? Hau da, egiten dugun guztiak erabilgarria izan behar du, hala edo hola.

Baina badaude gauza ederrak, magikoak, doan eskuratu daitezkeenak, eta, beharbada, eguneroko bizian ezinbestekoak ez direnak. Horien artean, poesia dugu. Batzuetan, gozatzea eta entretenitzea besterik gabe beharrezkoak dira, dudarik ez...

Horrela, olerkiek pertsonen kezkak erakusten dizkigute. Poeten begietatik eta sentimenduetatik sortuak dira, eta ez dakigu irakurle bakoitzari zer sortarazten dioten. Era berean, inork ere ezin du ziurtatu olerki bat edo poesia liburu oso bat irakurri ondoren sentikorrangoak edo pertsona hobeak izango garenik. Hemen segurua hauxe da: unitate honetan guztion gustuko poemak aurkezten saiatu garela.

Garai desberdinetako olerkiak landuko ditugu, zenbait gairen gaineko poemak ozen zein isilean irakurriz, buruz ikasiz, eta, azkenik, gu geu poeta bihurtuz. Konturatuko zarete munduan, mende eta garai desberdinetan pertsonen kezkak eta sentimenduak ez direla aldatu; izan ere, Euskal Herriko olerkariak zein atzerrikoek sentimendu eta kezka berberak izan dituzte lehen eta beti.

Azken urteotan euskal poemagintzak eta teknologiak bat egin dute askotan. Horregatik, unitate honen azken emaitza honako hau izango da: gai bat aukeratu eta poema idatzi ondoren, haren inguruko bideoklipa edo *making of-a* egin, eta gelakideen aurrean aurkeztea. Hau guztia hiruko taldeetan burutuko duzue.

Gaztelaniako ekoizpena ere bide beretik doa. Garai poetiko baten ezaugarriak kontuan harturik, olerkiak hautatu eta *Power Point* aurkezpena egingo duzue.



0. jarduera. Motibazioa eta negoziazioa	
1. LAN-SEKUENTZIA GAIK OLERKIGINTZAN 1. jarduera. Ideia bat darabilt buruan! 2. jarduera. Hitzak, bizitzaren muina. 3. jarduera. <i>Beatus ille, locus amoenus...</i> 4. jarduera. Gero gerokoak.	
2. LAN-SEKUENTZIA MAITASUNA 5. jarduera. Maite zaitut gaur eta beti. 6. jarduera. <i>Goxo goxo kanta egin nazu...</i> 7. jarduera. Maitasunak liluraturik. 8. jarduera. <i>Xirristi-mirristi.</i> 9. jarduera. <i>Ene bizitzaren onena.</i> 10. jarduera. Nere poxpolinari.	
3. LAN-SEKUENTZIA EUSKARA, EUSKAL HERRIA, ABERRIA 11. jarduera. <i>Euskara, jalgi hadi mundura!</i> 12. jarduera. Euskara: hizkuntza bat, mila milioi sentsibiltate. 13. jarduera. <i>Euskal Herrian, euskaraz.</i> 14. jarduera. Altxorraren bila. 15. jarduera. <i>Mendigoxaliarena.</i>	
4. LAN-SEKUENTZIA POESIA SOZIALA 16. jarduera. Ez naiz isilduko. 17. jarduera. Protesta-poesiaren aldarrikapenak. 18. jarduera. <i>Zapalduen olerkia.</i>	
5. LAN-SEKUENTZIA OLERKIAK, MUSIKA ETA IRUDIAK 19. jarduera. Egunerokoak. 20. jarduera. Ni, poeta. 21. jarduera. Hitzak eta musika.	
Auto-ebaluazioa	



0. jarduera. Motibazioa.



Musika zati batzuk entzungo dituzue. Entzun lasai eta saiatu irudimena aske uzten. Zein kolore datorkizue burura pieza bakoitza entzutean? Zein toki? Zein pertsonaia? Nola sentitu zarete?

Bete ezazue koadroa zuen pentsamendu eta sentipenekin:

MUSIKA PIEZA	KOLOREA	NON?	NOR? NORK?	NOLA?	ISTORIOTXOA
1					
2					
3					
4					
5					

Lauzpabost kideko taldeak egin eta pieza bakoitzak zuengan sortarazi duena azaldu taldekideen artean. Musika pieza horrek burura ekarri dizkizuen guztiarekin istoriotxo bat garatu litekeela ikusi duzue. Talde bakoitzean istoriotxo bat aukeratu beste ikaskideen aurrean azaltzeko. Konturatuko



zarete musika berberak sentimendu desberdinak sortzen dituela pertsona bakoitzarengan.

Musika, poesia moduan,
gogoetarako leihoa izan
daiteke. Sentimenduak
azaleratzeko adierazpide
paregabea dugu.

Zer da poesia?

"Ez da erraz esaten poesia zer den", Kirmen Uribe

Kirmen Uribe idazle eta poeta ondarrutarrek zaila dela uste badu ere, gu denon artean poesia zer den zehazten saiatuko gara.

Zuek nola definituko zenukete poesia edo olerkigintza? Hona hemen zenbait jendek esandakoa. Taldeka eztabaidatu ondokoak, eta irakasleak emandakoak. Definizioak aztertu eta txantiloia bete. Denon iritziak entzun eta erantzunak arrazoitu.



*Poetry is truth in its
Sunday clothes.*

Joseph Roux (1834-86)

*La poesía es el sentimiento que
le sobra al corazón y te sale
por la mano.*

Carmen Conde (1907-1996)

*Poesia komunikatzeko era bat izateaz
gain, lan pertsonal bat da, bakarkako
lana eta gehienetan gure buruarekiko
bakarrizketa baten emaitza ere izaten
dela esatera ausartzen naiz.*

Iraia Urkiaren bloga

*Poetry is a mirror
which makes beautiful
that which is distorted.*

Shelley (1792-1822)

*Poesia musika da eta izaditik
ateratzen ditu soinuak.*

Juan Kruz Igerabide (Aduna 1956)

*Hizkuntzea poemen pintzela
da, eta berbak koloreak*

Gotzon Barandiaran

Zer diote definizio hauek olerkien egitura eta esanahiaren inguruan?

EGITURA	ESANAHIA

Eta orain, ausartuko zinatekete "Zer da poesia?" galderari erantzun bat ematen?

ZER DA POESIA?

Izenak _____

POESIA edo OLERKIGINTZA

Poesia edo olerkigintza literaturaren agerpen berezia da. Literatura jardura honetan dabiltzanak *olerkariak* edo *poetak* dira. Olerkaritzaren ezaugarriak honako hauek dira:


- ❖ Egileak bere buruari eta inguruan duen munduari begiratzean sentitzen dituen sentimenduak eta zirrarak adierazten ditu era subjektiboan.
- ❖ Alderdi estetikoak garrantzi handia du. Horregatik, poemak sinbolismo eta irudi literarioz hornituta daude.
- ❖ Olerkiek, sarritan, lege batzuk izaten dituzte, hots, hitz errepikapenak, neurria eta errimak... erabiltzen ditugunak erritmo berezia lortzeko.

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Olerkigintza>

Poemak biltzen dituen unitate honetan sentimenduak azaleratuko dituzue; poema batek lortzen ez badu, beste batek hunkituko zaituzte. Olerkietan sinbologia eta irudi literarioak aztertzeaz gain, topiko literario batzuk ere ikusiko dituzue. Gaztelaniako unitatean literatura-mugimenduak izan badira abiapuntu, euskarazko unitate honetan gaur eta beti landu diren gaiak izango dituzue oinarri.


Bestalde, unitatean zehar landuko duzuen baliagarria izango zaizue bideo-klipa eta *making of*-a egiteko. Gaia aukeratu beharko duzue, olerkia sortu, musika aukeratu, grabatu eta azkenik guztion aurrean erakutsi. Hau guztia *making of* edo bideo-kliparen kronika batekin osatu beharko duzue. Bertan, nola egin duzuen, eta zergatik aukeratu duzuen hau edo bestea azalduko duzue, ahoz eta idatziz.

Aste batzuk pasatuko dituzue olerkigintzan murgilduta. Goza ezazue ahalik eta gehien, batek daki, agian, bihar-etzi zuek ere poeta bihurtuko zarete.



Komenigarri izango zaizue, azken ekoizpenerako bete behar izango duzuen prozesua argi izatea. Horretarako, hiruko taldeak egin eta aztertu ondoko txantiloia. Ezer falta bada, gehitu eta soberan zeozer ikusten baduzue, planteatu ikaskideei.

Zer ikasiko dugu?	Nolako jarduerak egingo ditugu?	Nola ebaluatuko dugu lana?
▪ Poesiaren ezaugarriak ▪ Gai unibertsalak euskal olerkigintzan ▪ Poemak ulertzeko baliabideak ▪ Olerkiak ekoizteko prozedura ▪ Ozen irakurtzeko baliabideak ▪ Lanaren kronika idazten ▪ Bideo-klipa taldeka sortzen eta aurkezten	▪ Poemak (idatziak eta ahozkoak) aztertu eta fitxak bete ▪ Galdera zehatzak erantzun ▪ Arrazoitutako azalpenak eman ikaskideei ▪ Ekoizpenak berrikusi eta zuzendu ▪ Ikaskideen ekoizpenak aztertu ▪ Taldeka eztabaidatu, ados jartzeko ▪ ...	PROZEDURAK ▪ Auto-ebaluazioaren bidez ▪ Ikaskideen ebaluazioaren bidez ▪ Aurkeztutako lantxoaren bidez ▪ Probatxoaren bidez ▪ Koadernoak zuzenduz ▪ Azken ekoizpenaren bidez ▪ ... JARRERAK ▪ Parte-hartze aktiboaren bidez ▪ Talde-lanetan kideak errespetatuz ▪ ...



1. LAN-SEKUENTZIA GAIK OLERKIGINTZAN

1. jarduera. Ideia bat darabilt buruan!

Jarduera honetan olerkietan irakurtzen diren gaiak ekarriko dituzue burura.

Zuek ere, olerkarien antzera, zeuen buruari eta inguruan duzen munduari begiratzen diozue. Zer sentimendu sortzen zaizkizue eguneroko bizitzan? Zerk kezkatzen zaituzte? Idatz itzazue ondoko taulan.

Sentimenduak	Kezkak

Zuek aipatutako sentimendu eta kezken artean, zeintzuk dira olerki baten gaia izan daitezkeenak?

Idatz itzazue hiru orritxoan.



- ✓ ...
- ✓ ...
- ✓ ...

Poetek olerkietan jorratzen dituzten hiru GAI? Eta minutu batean gainera! EZINEZKOA da hori!



Seguruenik, ikaskide bakoitzak hiru gai baino gehiago idatzi ditu. Horietako gai batzuk denon ahotan ibili dira, beste hainbat, aldiz, zuek bakarrik pentsatu dituzue. Guztira baietz izan hamabost gai desberdin!


Euskal olerkari edo poetek ere hamaika gairen gainean idatzi dituzte olerkiak eta abestiak. Jakina, ezin izango dituzue den-denak ikusi eta ikasi. Ikastunitate honetan zehar euskal olerkigintzaren gaitara hurbilduko zarete; sekuentzia bakoitza beren-beregi aukeratutako gai baten ingurukoa baita. Gaiak, besteak beste, HIZKUNTZA (euskara), ABERRIA, MAITASUNA, HERRIA *vs* HIRIA, eta ERREALITATE SOZIALA dira.



2. jarduera. Hitzak, bizitzaren muina.

Poesiak, beste edozein testuk bezala, ideiak, pentsamenduak, sentimenduak... aditzera ematea du helburu; zerbait komunikatu nahi du. Beraz, *Jóvenes y sociedad* eta *De profesión, periodista* unitateetan ikusi zenuten bezala, komunikazio elementuak zaindu behar dira testuak idatzi eta irakurtzerakoan. Eta olerkigintzan, ere bai. Oso garrantzitsua da zer esaten den, zergatik, nori esaten diozuen, eta, noski, nola esaten diozuen.

"Zergatik idazten duzu
poesia? Iraultza bat
pizteko?
Famatua egiteko?"



"Ez. Gero nik irakurtzeko".
Eneko Barberena *copyleft* ©

Ariketa honetan lau olerki dituzue. Bakarka irakurri ondoko txantiloia, olerkietan zeri erreparatu jakiteko. Ondoren, irakurri olerkiak eta txantiloia bete. Gero, alboko lagunarekin konparatu, erantzunak ondo arrazoitu, eta azkenik, talde handian bateratu.

OLERKIA	1	2	3	4
Gaia				
Nork idazten du?				
Nori idazten zaio?				
Zer esaten da?				
Zertarako?				
Testuingurua				
Zer titulu jarriko zenioke?				
Gustatu zaizu? (0-5)				

Barakaldokoa naiz eta ❶
daukat paro obrero
horregatik euskaltegira
noa ni egunero.
Euskaraz bazekien nire
bisabueloak edo
baina ni roilo hontaz
orain arte zero,
goizero, goizero
AEkan bezero,
batzuetan ero,
besteetan bero
baina ez dut milagro
handirik espero.

Goizean goiz hasi behar dut
motibazio bila.
Euskara ez da ingelesa
baina ez dago hila,
egun askotan pensatzen dut
hau dala inutila,
Nik ez daukat kulparik
ez banaiz abila,
hau da hau makila,
aditz klase pila,
hitzak beste mila;
animo mutila
esaten dute baina
ez da hain fazila.

Idea hau nire buruan
ez dakit noiz hasi zen
baina batzutan ez naiz hemen
gehiegi dibertitzen,
lau gauzak izen bat dute eta
gauza batek lau izen,
kokoteraino nago
klaseak aditzen
pegatak ipintzen
ta dirua biltzen ...
nola sartu nintzen
ez dut konprenitzen
lan on bat bilatzeko
ez badu zerbitzen.



Jon Sarasua

Pospolo bizitza daramazu ❷
pospolo heriotza baten esperoan
Zuk zerorrek zeniotan
hiltzea baino latzagoa dela
ez jakitea zertarako bizi garen
Eta atzamar puntak erre dizkidazu
nahita edo nahi gabe
zeure burua erre duzunean.

Leire Bilbao

Mendian gora haritza
ahuntzak haitzean dabilta
itsasoaren arimak dakar
ur gaineen bitsa.
Kantatu nahi dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banintza. (Bis)

Euskal Herriko tristura
soineko beltzen joscara
txori negartiz bete da eta
umorez hustu da.
Emaidazue freskura
ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustura. (Bis)

Euskal Herriko poeta
kanposantuko tronpetak
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari topeka.
Argitu ezak kopeta
penak euretzat gordeta
goizero sortuz bizitza ere
hortxe zegok eta. (Bis)

Mundua ez da beti jai
iñoiz tristea ere bai
bainan badira mila motibo
kantatzeko alai.
Bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi
ni hiltzen naizen gauean
behintzat
egizue lo lasai. (Bis) ❸

Xabier Amuriza

Zu zera nere izarra
zu nere eguzkia
aingeruen artetik
zerutik jatxia.
Barren kalera nua
bertan nai det bizi,
antxen ikusiko det
sarritan Maiñasi.
Nere biotza dago
oso penaturik,
joan bear detalako
laister zure ondotik.

Iparragirre ❹



3. jarduera. *Beatus ille, locus amoenus...*

Bultzi leyotik olerki honetan, margolanetan bezala, Lizardik bere begiek ikusten dutena deskribatzen du. Honako honetan, olerkiaren gaia natura, edo landa-bizitza da.

Irudiei begiratu eta poema irakurri. Erreparatu al diezue irudiei olerkian? Irudiak azpimarratu bakarka, eta gero, alboko lagunarekin batera, galderak erantzun.



Nola sentitzen
da idazlea?

Zer ikusten
du Lizardik?

Non dago idazlea?

Zer adierazi
gura du
olerkariak?

Zer nahi izango
luke egin, baina
ezin du?



Bultzi leyotik

Oi, lur, oi lur!
Oi, ene lur nerea!...
Oi, goiz eme,
parre gozoz ernea!...
Arto musker,
mendi, baserri zârrak;
ale gorriz
abailduta sagarrak:
oro laño
mê batek estalia,
urrez oro
eguzkiak yantzia...
Nekazari,
gizandi bat iduri
soroan zut:
beyondeizula zuril...
Zure bazter,
gurazko aberria,
doa zoro
(ta bertan ni) bultzia...
Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta
zure sariz aseal!...
Bañan... ezin:
bêko bear goriak
narama... Agur
soro, sagar, mendiak!...

Xabier Lizardi, 1929

Lizardik *Bultzi leyo*tik olerkian bi topiko literario jorratzen ditu. Baina...

Ba al dakizu topikoa zer den?

Hiruko taldeetan eztabaida ezazue eta ondoren eman hiru adibide.

TOPIKOAK ETA TIPIKOAK

1. Euskal Herrian jatun onak gara.

2. _____

3. _____

4. _____

Dagoeneko jabetu zarete gaiak olerkigintzan erabat unibertsalak direla. Izan ere, kultura klasikotik hona, poesian gai berberak erabili dira behin eta berriro. Eta hainbeste erabiltzeagatik **topiko** bihurtu dira.




Elkartu, topiko literarioak adierazten dituzten irudiak eta topiko bakoitzaren definizioa. Azkenik, ondorengo koadrotxoko izen latinoei erreparatuz, saia zaitetze topiko bakoitzari izena ematen.

Tempus fugit ♦ *carpe diem* ♦ *locus amoenus* ♦ *vita flumen* ♦ *Beatus ille*



Hura bai zoriontsua! Normalean baserrian eta herri txikietan bizi zirenak izaten ziren zoriontsuenak. Gaur egun gauzak zeharo aldatu dira.



Gauzak iragankorrak dira, ez dute luzaro irauten. Lelo hau erlojuetan aurkituko duzu.



Toki atsegina. Literatura klasikoan landak, ardiak eta mendiak ziren edozeinentzat leku idilikoak. Orain, aldiz, Karibeko hondartzak dira paradisuak.



Vita flumen

Bizitza ibaia da. Ibaia itsasorantz doan bezala, guk jaiotzatik heriotzarantz egiten dugu bidea.



Eguna aprobetxatu ezazu, biharramonean ez izan konfidantzarik

Beste era batera esanda, egunean egunekoa bizitzera bultzatu nahi du, bihar egongo ote den, edo hemen egongo ote garen, ez baitakigu.

Lizardik olerkian *beatus ille* eta *locus amoenus* topiko literarioak aipatzen ditu *Bultzi leyotik* olerkian. Non?



Beatus ille: _____



Locus amoenus: _____



Orain ozenki irakurriko duzue Lizardiren *Bultzi leyotik* poema. Baina lehenik eta behin irakurri isilean. Prest zaudetenean, alboko ikaskidearen aurrean irakurri eta berea entzun. Zuen ikaskidearen irakurketa entzun ondoren ebaluazio orria bete.

Ozen irakurtzen hasi aurretik, gogora ezazue dikzioa hobetzeko ariketak egitea komenigarria dela. *Kazetaritza lanbide* unitateko 16 eta 17. jardueretan zer egin eta nola egin azaltzen zaizue.

Ozen eta ondo irakurtzea ez da batere erraza, baina ekinean lortuko duzue. Hona hemen aholku batzuk:



OZEN ONDO IRAKURTZEKO AHOLKUAK

- ❖ Olerkia isilean irakurri, eta ulertu. Hitz ezezagunak edo zailak azpimarratu.
- ❖ Proba moduan ozenki irakurri, ahoskera, intonazioa eta ozentasuna zainduz: doinua aldatu adierazi nahi duzuenaren arabera (suspensea, tristura, arreta erakartzea) eta puntuazio ikurrak (etenak, harriurak, galderak...) kontuan hartu.
- ❖ Astiro irakurri. Ez ahaztu entzuleak ez duela irakurriko, beraz denbora eman behar zaio bere buruan entzundakoaren irudia egin ahal izateko.



Irakurketaren tonuak poema ulertzen laguntzen du. Intonazio eta ahoskera egokiak erabiliz, irakurle moduan hurbilago egongo zarete idazlearengandik eta zuek ere olerkariak berak sentitzen duena sentitu ahal izango duzue.

IRAKURKETARAKO EBALUAZIO-ORRIA

Astiro irakurri du eta hitzak ondo ahoskatu ditu.	
Bolumen eta erritmo egokiak; aldatu egin ditu behar izan denean.	
Puntuazio-marken arabera tonua eta intonazioa aldatu ditu.	
Intonazioa egokia izan da, aldatu egin du behar izan duenean.	
Olerkia ulerterraz egin du.	

4. jarduera. Gero gerokoak.

De paso

Decir espera es un crimen,
decir mañana es igual que matar,
ayer de nada nos sirve,
las cicatrices no curan el mal.

Sólo morir permanece
como la más inmutable razón,
vivir es un clavo ardiente,
un ejercicio de gozo y dolor.

Luis Eduardo Aute

Ibaian behera

Esango al zenioke
ur-jauzitik libratu
eta lizar-hosto berdean
zintzilikaturik geratu den ur-tantari,
azkenean, nola edo hala,
ur-jauzian doazen tanta guztien
helmuga berbera izango duela?

Pello Otxoteko, 2003

Bizitzera etorri naiz

Bizitzera etorri naiz
eta nire lehen manamendua
botako dut; bizi, eta gero
agian keriak eskaintzen dizkidan
bizio guztietan bustiko ditut
nire gutizia guztiak.

Gema Lasarte 1985

Pasatiempo

Cuando éramos niños
los viejos tenían como treinta
un charco era un océano
la muerte lisa y llana
no existía.

Luego cuando muchachos
los viejos eran gente de cuarenta
un estanque un océano
la muerte solamente
una palabra.

Ya cuando nos casamos
los ancianos estaban en
cincuenta
un lago era un océano
la muerte era la muerte
de los otros.

Ahora veteranos
ya le dimos alcance a la verdad
el océano es por fin el océano
pero la muerte empieza a ser
la nuestra.

Mario Benedetti

Forma fin bat ikus dezazunean

Forma fin bat ikus dezazunean
harrapa ezazu
eta ahal baduzu besarka ezazu,
neskatila dela edo mutikoa bada ere,
ez zaitez lotsatia izan, izan zaitez ausarta, alaia,
bizitza laburra da, goza ezazu
zure haragiaren ukiduraz
laket zaizun momentuan.
Ez dago larrua jotzerik hilobian.

W.H.Auden

Aurreko orrialdeko bost olerkietan topiko literarioak irakurri dituzue. Bete ezazue beheko taula olerki bakoitzean zein topiko eta non agertzen den adieraziz.

*Carpe diem * Tempus fugit * Locus amoenus * Vita flumen * Beatus ille*

Olerkia	Topiko literarioa	Olerkian non?
<i>De paso</i>		
<i>Forma fin bat ikus dezazunean</i>		
<i>Ibaian behera</i>		
<i>Bizitzera etorri naiz</i>		
<i>Pasatiempo</i>		...el océano es por fin el océano pero la muerte empieza a ser la nuestra.


Eguneroko hizkuntzaren erabileran, bai euskaraz bai gaztelaniaz, topiko horiek zenbait esapidetan eta atsotitzetan islatzen dira. Aukera ezazue topiko bat eta saia zaitetze pare bat adibide idazten. Adibideak ezagunak edo zuek zeuek asmatutakoak izan daitezke.

1. _____
2. _____
Topikoa: _____

2. LAN-SEKUENTZIA MAITASUNA

5. jarduera. Maite zaitut gaur eta beti.

Irakur ezazue olerkia eta, alboko lagunarekin batera, galderak erantzun.



Hondartza eta itsasoa

Urlaster baten gidari

zure hegalaria nintzen
iritsi
eta abentura eta gau
luzeen artean,

Zein da gaia?

zure kosta izan nuen helmuga.

Arroka eta harea artean biluzik,
amodio hunkigarriena nuen ezagutu:
zure muxuen uretan nintzen ito,
zure ahoan igeri

Nor da "ni"?

eta zeru laburtuaren sentsazioa
bilatu nuen bi hitzetan:
"maite zaitut".

Kontxako hondartza,
zeu zinen.

Sentitzen duena
adierazteko, zein hitz
erabiltzen ditu poetak?

Eta uhinetan apurtzen den
Kantauri itsaso hori,
zure hegalaria heldu,
duda-mudan egin

Nor da "zu"?

eta atzeraka doana,
hori...

hori, ni nintzen.

<http://txii.spaces.live.com/blog>

Olerki honetan, jakina, maitasuna da gaia. Esaten da maitasuna gizakiak izan zezakeen sentipenik politena eta aberasgarriena dela, maitatzeak minik handienak sortzen baditu ere. Maiteminduta egoteak sentimendu guztiak dakartza, denak batera: ezin duzue irria aurpegitik kendu, esekigailu bat irentsi duzuela ematen du; maite duzuen bat buruan; maite duzuen hori ikustean, poza, dardara, urduritasuna, lotsa, ikara... eta izerdia!




Olerkiak *Hondartza eta itsasoa* izena du. Poetak maitalearengana hurbiltzean sentitzen duena adierazi nahi du, eta lortzen du **metafora** eginez. Baina...

ZER DA METAFORA?

METAFORA...

- ✓ Irudi literario bat da.
- ✓ Zerbait adierazteko beste hitz desberdin bat erabiltzen da.
- ✓ Bi elementu desberdinen arteko antzekotasunean oinarrituta dago.
- ✓ Hitzez eta irudiz ager daiteke.

Zer adierazten dute irudi eta esapide horiek?



Konturatu zarete metaforak ez direla agertzen soilik olerkigintzan. Begiratu egunkari batean agertu zen lerroburuari eta binaka erantzun galderei.


Athletic-eko *lehoiek Katedralean* jokatuko dute gaur iluntzeko zortzietan.

Lehenengo metaforak Athletic taldeko jokalariek eta lehoiak konparatzen ditu. Zergatik?



- ☐ jokalariek ile luzea dutelako.
- ☐ jokalariek krudelak eta haragijaleak direlako.
- ☐ jokalariek oso indartsuak eta adoretuak direlako.

Seguruenik, zuetariko gehienok hirugarrena aukeratu duzue. Gaur egun Athletic-eko jokalariek grina dutela esaten da, erpe zorrotzak dituztela futbol zelaian. Hala ere, kasu honetan erreferentea aldatu egin da hasieratik hona. Ezetz jakin zer dela-eta diren lehoiak Athletic-eko jokalariek?



Bigarren metaforan, *Katedralean* jokatuko dutela esaten da. Aipa itzazue zuen ustetan zein antzekotasunetan oinarritzen den metafora hau.




...

...

...

Olerkariak metaforak eta beste irudi literarioak erabiltzen dituzte irakurlearengan eragiteko. Batzuetan, edertasuna da helburua; besteetan errazago gogoratzea, erritmo, sentsazio ... bereziak sortzea, etab.

Hona hemen irudi literario batzuk eta zenbait definizio eta adibide. Jakingo zenukete esaten zein den zein? Lotu geuzien bidez taulan daudenak eta ezarri irudi literario bakoitzari dagokion zenbakia.



ALITERAZIOA ○	① Jarraian doazen hitzetan hots edo silaba jakin bat errepikatzen da.	✓ <i>Begiak uso, mingaina arana zure bihotza, ene aingura...</i> J.Sarrionaindia
ELIPSIA ○	② Perpausa ulertzeko beharrezko ez diren elementu bat edo gehiago kentzen dira.	✓ <i>... Korronteak zure kostaldetara narama...</i> Mikel Markez
PARADOXA ○	③ Gezurra badirudi ere, kontrakoa adieraziz, askotan egia esaten da.	✓ <i>... Gu mundu gara, baina mundua ez da gurea...</i> J.L. Otamendi
METAFORA ○	④ Zerbait adierazteko beste hitz bat erabiltzen da.	✓ <i>Gatibu zoriontsuak egin gura gaituzte...</i> Urtzi Urrutikoetxea

Lauko taldeak egin eta irakur ezazue berriro *Hondartza eta Itsasoa* olerkia. Aurkitu olerkariak erabili dituen irudi literarioak, eta zer efektu lortu nahi izan duen.

IRUDI LITERARIOA	OLERKIAN, NON?
Lortutako efektua:	

6. jarduera. *Goxo goxo kanta egin nazu...*

Irudi hauek eta esaldiek istorio bat kontatzen dute. Lehendik eratu dituzuen taldeetan bildurik, asmatu zein izan daitekeen istorio hori. Izenda ezazue taldeko ordezkaria gero talde osoaren aurrean denon artean adostutako gertakizuna kontatzeko.



senarra jeloskor jarri da



Santa Elisabetek eta bere senarra Zakariasek,
zahartzaroan izan zuten semea

Maria Solt eta Kasteroren istorioa

Goxo, goxo kanta egin nazu Benitoren Maria Solt dio Itoiz taldeak Lau Teilatu abestian. Prest zaudete zuek ere Maria Solt abesteko?

MARIA SOLT ETA KASTERO

Maria Solt eta Kastero,
Bi amoros zahar bero;
Hirur hoge hamarna urthetan hartü die amorio!
Kastero jelostü denian, Maria Solt ezari kanpo.



Benito Lertxundi

Maria Solt dua nigarrez,
Izorra dela beldürrez,
Barnets-Bordako anderiak kontsolatü dü erranez:
Emazte zaharrik oküpü agitzen eztela araez.

Maria Soltek arrapostü:
«Santa Elisabet badüzü;
Saintü zahar bate-ganik oküpü agitü düzü;
Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü».

Kastero eztüzü saintü,
Sobera bürhauti düzü;
Elizalat juan eta taharnan egoiten dütü;
Kastero dena gatik saintü, Maria Solt antzü zira zü.

Pierre Topet "Etxahun

ezari= jarri, ipini
izorra= haurdun, umedun
erran=esan, ele (egin)
oküpu=beteta egon, haurdun
arrapostü= erantzun
agitü= gertatu, bilakatu, pasatu
bürhaüti= biraoti, blasfemari
taharnan= tabernan
antzü= lehor, haurrik izan ezin duena




Etxahun Barkoxe

Maria Solt eta Kastero olerkian Etxahun Barkoxekoak eguneroko bizitzan ohikoa den irudi literarioa erabili zuen, **ironia**.

- ✓ Adierazi nahi denaren kontrakoa esatean bigarren irakurketa bat sortzen du entzule edo irakurlearengan.
- ✓ Askotan keinuen bidez jakinarazten da esaten dena ez dela adierazi nahi dena.
- ✓ Zerbaiten edo norbaiten kontura barre egiteko era.
- ✓ Sarri hartzaileak espero duena ez dator bat lortzen duen mezuarekin, eta horrela ere, ironia sortzen da.

Hay motivo laburmetraia eta iragarki bat ikusiko dituzue. Biak guztiz ironikoak dira. Binaka, esango zenukete non datzan ironia hori? Zer adierazten da bakoitzean, eta zer adierazi nahi da?

Berdin gertatzen da argazki hauetan:



Ironia sarri erabiltzen da. Saia zaitetze beste horrelakoren bat aurkitzen edo idazten. Gero, denonak bildu eta *collage* bat egin hormetan zintzilikatzeko.

7. jarduera. Maitasunak liluraturik.

Hona hemen maitasun olerkiak irudi literarioz horniturik. Jakingo zenukete esaten zer irudi erabiltzen duen poetak olerki bakoitzean? Irudiak nabarmenduta daude olerkietan.



...Ezingo dut ahaztu elkar besarkatzean,
mendian elkar ilargiari agurtzean,
lehorturiko malkoak triste zeundenean,
zure usain goxoa goizean esnatzean.

Maitasuna aurkitzen, zure laztanak sentitzen,
alaitasuna izaten, bidez okertu ginen.
Hainbeste itxaropen, utziriko malkoek,
ziurtasunez mintzatzen, nor zuen nor maitatzen?

② Mikel Eguiluz

Bizitzako gaueko hamabietan
zeure presentzia zeure
ausentzia-
tik datorkidala sentitzen dudanean,
edaten zaitudanean usaina malkoen ondora oheratzetik
datorkidala sentitzen dudanean
ez zait nahikoa
...

①

Tere Irastortza, 1980

...ohean lo egin biok
estalkirik gabe gabeen
gau guztion argi gabeen
erre nintzan maitatze suaz

③

Jon Mirande

Inok agintzen ez didalako
dut maite
maite dudana.
Inork agintzen ez didalako
ditut basamortua eta izarloak maite.

④

Itsasontzi noragabeak, gauerdiko biolinak
ilunabarren margoa, xorino hezurtoen higidura,
sagarrondoetan eskegiriko bihotz horik,
tristura handiegia zaien neskatzak
eta zure irria, zure irria ere inork agintzen ez didalako
dut maite.

Joseba Sarrionaindia, 1980

Zure begiek mintzen naute
zure ahoak beldurtzen nau
niretzako nahi zinduket
sentimendu mugaezin hau

⑤

Urontzi bat naiz
noraezean dabilen urontzia
mila arroken kontra jo dut baina
beti korronteak zure kostaldetara narama
Mikel Markez



Loreak udan ihintza bezela maite det dama gazte bat,
hari hainbeste nahi diotanik ez da munduan beste bat;
inoiz edo behin pasatzen badet ikusi gabe aste bat,
bihotz guztira banatutzen zait halako gauza triste bat.

Neskatxa gazte pare gabea, apirileko arrosa,
izarra bezin dizdizaria, txoria bezin airosa;
oraintxe baino gusto gehiago nik ezin nezake goza:
zori onean ikusten zaitut, nere bihotzak hau poza!

⑥

Bilintx

OLERKIA	IRUDI LITERARIOAK
1	
2	
3	
4	
5	
6	

8. jarduera. *Xirristi-mirristi.*

OTX! ATX! UTX!
HOTZAren HATSA ote da HITZA
ala HUTSAren aurka altxatako HOTSA
edo HITSA hauste arren UTZIitako HATZA

Xirrixti-
mirrixti, gerrena, plat
Olio-zopa, kikili-salda,
Urrup edan edo klip
Ikimilikiliklip!

Baga, biga, higa,
laga, boga, sega,
Zai, zoi, bele,
harma, tiro, pun!

Dzu! Dzu! Dzu!
Gorriak dzu!
Urdinak dzu!
Horiak dzu!
Ilunak, arreak, ugarrak
dzu!
Auto bakoitzak dzu
diotsu



Ozen irakurri. Ikusten duzuenek, kontsonanteak errepikatzen dira eta zaila egiten zaizue ahoskatzea.



Aho-korapiloetan berdin gertatzen da.
Aliterazioa da aho-korapiloen oinarria.

Sanson zein zan?
Sanson Sanson zan!
Eta Sanson Sanson ez bazan
Sanson zein izango zan?
Sanson Sanson ez bazan
Ez zan Sanson izango!

Gogoratzen duzue aho-korapilorik? Idatzi hemen bat. Edozein hizkuntzatakhoa izan daiteke.

AHO-KORAPILOA

Lauzpabosteko taldeak egin. Asmatu esaldiak, *k*, *b* eta *t* kontsonanteak errepikatuz. Saia zaitezte esaldi bana egiten. Gero, gelako taldekideek egindakoa bildu eta horma-irudietan idatzi. Ikasi buruz pare bat.







Gelako guztiek, irakaslea barne, Amaia Iturbidek idatziriko olerkia errezipitatuko duzue. Zuetariko bakoitzak lerro bat buruz ikasiko du. Ondoren, denok biribilean jarriarik, ozenki ahoskatuko duzue. Ez ahaztu: intonazioa eta ozentasuna zaindu behar dira eta astiro ahoskatu.



...-ri

Nire loa hiren ondoan paralela
nire euriarekin hire euri-aztuaren jarraian
nire gona gorenarekin hire bakea-estean gidoian
nire nahi bakiarekin hire nahien zerrendan
nire isiltasunarekin hire ondoan
nire ametsak hire amets arbolatuaren azpian
nire kukubarrea hire irribarre kukubilkatuaren txokan
nire negarraren zerdi-anpuloak hire hodei moltsuaren barruan
nire imentzio laiztasunak hire argizko ostarteen artean
nire bihotz piztia hire estu-estinezkoengan
nire irudimendukaria hire argien abartsuaren perimetroan
nire hitz neurrak hire hitzaren ertzean
nire antzerki-burua hire sormenaren gainean
nire oin zelairatua hire errromesen lerroan
nire gora-beherak hire orekatuaren baitan
nire begi lilurak hire ahur-habien hondoa
nire gau kaiolatuak hire hegalaria-azueluan
nire irudi ustetsuak hire kolore-azapelaren gainean
nire eguzki borobilak hire ironikaren adar putzuan
nire erretzen nitzen samsonearen mahai erdian
nire bekotza hire kokotzaren aurrez aurrean
nire ziztu soulak hire argien saihetsean
nire noraezeko planak hire atarian
nire gela mela-epelak hire ezeze-alaietan
nire ibai hariztatua hire inguruan

Amaia Iturbide, 1994

9. jarduera. *Ene bizitzaren onena.*

Hertzainak taldeak 90eko hamarkadaren hasieran argitaratutako abestia duzue hemen. Entzun abestia eta binaka aztertu bertan esaten dena.

Ez dira betiko garai onenak,
azken finean gizaki hutsak gara,
barearen ostean dator ekaitza,
udaberri berririk ez guretzat.

Denborak aurrera etengabe
ta orain ezin eutsi izan ginana,
rutinaren morroiak bihurtu gara,
laztana lehen baino lehen aska gaitzean.

Ohartu gabe arrunt bilakatuta,
ohartu gabe heldu gara mugara,
mundua jausi zaigu gainera,
maitia lehen baino lehen aska gaitzean,
ez dakigu non dagoen hoberena,
bila dezagun beste lekuetan.

Bai, zin dagizut ez dizudala inoiz gezurrik esan eta
zaude ziur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz,
aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena,
baina orain maitia lehen baino lehen aska gaitzean.



AITORMENA


- ❖ Olerkiaren gaia: _____ Protagonistak : _____
- ❖ Olerkariaren helburua: _____
- ❖ Topiko literarioak: _____ Non? _____
- ❖ Irudi literarioak: _____
Non? _____
- ❖ Zuengan sortu duen sentimendua: _____

Zuetariko bakoitzak ideia bat izan lezake, eta seguruenik oso ona.

Inportanteena ez da olerkariak buruan zeukana olerkia idatzi zuenean, baizik eta, olerkia irakurri duenean, irakurleari sortu zaion ideia, pentsamendua edo sentimendua....

10. jarduera. Nere poxpolinari.

Eta orain, prest zaudete, taldeka, lau lerroko poematxo bat idazteko? Gaiak, maitasuna izan behar du, noski. Olerkia idazten hasi aurretik gogora ekarri maitasunarekin zerikusia duten hitzak (izenak, adjektiboak, aditzak...)



Beste talde bateko olerkia irakurri eta ondoko kontrol zerrenda bete.

MAITASUNEZKO OLERKIA EBALUATZEKO TXANTILOIA	BAI	EZ
• Maitasunezko olerkia da.		
• Olerkia ulerterraza da.		
• Irudi literariorik erabili dute?		
• Sentimendurik edo sentsaziorik sortu du gudan?		
• Gustatu zaigu? (0-5) _____		

3. LAN-SEKUENTZIA

EUSKARA, EUSKAL HERRIA, ABERRIA

11. jarduera. *Euskara, jalgi hadi mundura!*

Hemen ari naiz, hizkuntzarenganako maitasunak baino, Euskal herriarenganako maitasunak eraginda. Euskara izan, maite dudan Euskal herriaren hizkuntza da. Baina nik maite dudan Euskal Herria ezin da mintzatu euskaraz; trakestuta aurkitzen da, baldarturik (nire eta beste askorengan behinik behin). Euskara saiaketak egiten dihardut.

Bitoriano Gandiaga

Hizkuntza eta aberria sarri agertzen dira olerkigintzan unibertsalean. Etxepare (XV. mendean) izan zen Euskal Herrian euskararen aldeko aldarrikapena egin zuen lehena. Nork ez ditu *Kontrapas* eta *Sautrela* ezagutzen?



**Euskara,
jalgi hadi kanpora.**

Garaziko herria
benedika dadila,
euskarari eman dio
behar duen *thornuia.

**Euskara,
jalgi hadi plazara.**

Bertze jendek uste zuten
ezin eskriba zaiteien;
orai dute forogatu
enganatu zirela.

**Euskara,
jalgi hadi mundura...**



Sautrela

Heuskara da kanpora, eta goazen oro danzara

O heuskara *lauda ezak garaziko herria
Zeren hantik ukhen baituk behar duian thornuia
Lehenago hi baitinzan lengoajetan azkena
Orai aldiz *izanen iz orotako lehena.

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden
Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen
Zeren ezein eskripturan *erideiten ezpaitzen
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen...

*thornuia= **kategoria**


* lauda=**goraipa, goratu**

*izanen iz=**izango haiz**

*erideiten= **aurkitzen**

Etxeparek idatzitako *Linguae Vasconum Primitiae* da euskaraz inprimatutako lehen liburua. Liburua 15 olerkiz osatuta dago; horietako bi erlijiosoak dira, beste 10 amodiozkoak, eta azken biak euskara laudatzeko eta goratzeko asmoarekin egin zituen olerkariak.

Binaka begiratu ondoko taulan dituzuen galderei. Galderak erantzun baino lehen, olerkiak irakur itzazue berriro.



Kontrapas eta Sautrela

* Zer tonu dute poemek? ☐ alaia ☐ tristea ☐ nostalgikoa ☐ kezkatia

* Zergatik tonu hori? _____

* Zein da bertso hauen gaia? _____

* Zein da Etxepareren helburua? _____

* Zer nahi du Etxeparek euskararentzat? _____



12. jarduera. Euskara: hizkuntza bat, mila miloi sentsibiltate.

Lauzpabost kideko taldeak egin, olerkiak irakurri eta galderak erantzun. Gero, talde osoaren aurrean, zeuen taldean adostutakoa azaldu.

Hizkuntza batek ez daki
onaren eta txarraren berri.
Hori gizakion kontua da.
Hizkuntza bat itzalaren antzekoa da.
Ukabila altxatuz gero
hark ere altxatu egingo du.
Ihesi bazoaz, hark ere
zure atzetik egingo du ihes.

Hizkuntza batek ez daki
egiaren ala gezurraren berri.
Hori gizakion kontua da.
Hizkuntza batek ez du hormarik eraikitzen,
kolorez pintatzen ditu.
Hizkuntza batek ez du inor hiltzen,
batu egiten gaitu.

Baina hori bai, hizkuntza bat,
hizkuntza bat hil egiten da.

Kirmen Uribe, 2004

Gorpu ustel bat poltsa opako batean?
Amonaren antigoaleko orratza?
Pin modernoa, guai eta merkea?
Fosil bitxi bat kristalezko urnan?
Behi potoloa, eusko labela, errapea
tantaka?
Ikono mirakuluzkoa aldareetan?

Zer zara, lingua navarrorum,
gure bihotzeko mapamundian?
Helmuga bat, lurralde bat,
argonauten ardi-larru polikromoa.

Miren Agur Meabe 2008

EUSKARA...	
Zer zeukaten buruan olerkariak poema bi hauek idaztean?	
Zure ustetan nola sentitu zen Kirmen Uribe olerkiaren amaieran?	
Zer adierazi nahi du Miren Agur Meabek bere olerki honekin?	
Irudi literariorik ikusten duzue? Zeintzuk?	

Irakurri berriro Kirmen Uriberen olerkia. Talde berberetan lanean jarraitu eta ondoko taula bete.

(Hizkuntzak hormak)
kolorez pintatzen ditu.


Ihesi bazoaz, hark ere egingo du ihes.

Hizkuntza bat hil egiten da

- ♦Hizkuntza bat hil daiteke?_____ Zergatik?_____
- ♦Hizkuntza batek ihes egin dezake?_____ Zergatik?_____
- ♦Hizkuntza batek hormak pinta ditzake?_____ Zergatik?_____
- ♦Beste adibiderik?_____

Pare bat irudi berri erabili ditu Kirmenek hizkuntzei buruzko gogoeta egin duenean.

Zer da zer? Elkartu definizioak eta irudi literarioak.



_____ Gehiegikeria handia egitea, esandakoaren dimentsioa handitu edo txikituz. **Adibidez:** *milaka aldiz deitu dizut.*

_____ Gauzei edo izen abstraktuei bizidunen ezaugarriak edo ekintzak ematea. **Adibidez:** *...gauak arratsaren bidea topatu eta berriz...*

_____ Bi elementuen arteko berdintasuna adieraztea, *bezain, beste, dirudi, balitz...*erabiliz. **Adibidez:** *eguzki biren moduko begiak*

_____ Hitzen ordena aldatzea.
Adibidez: *...zure hegalaria nintzen iritsi...*

13. jarduera. *Euskal Herrian, euskaraz.*

Nire aberria lurra bezain za(ha)rra da
baina ez da lurra bakarrik
haizeak bezala inguratzen nau eta
lotzen askatzen naularik.

Nire aberria suaren antzekoa da
beti bera berria beti
epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean
ta erretzen ere badaki.

Aberriaren mugak,
euskararenak
gure baitan daude gehienak
euskara zabalduaz
lau haizetara
zabalago egiten gara...

Joserra Garzia

Zazpi Eskual herriek bat egin dezagun,
Guziak beti, beti, gauden gu Eskualdun.

Ekalde Iberrian, lehenik sortua,
Lau mila urte huntan hor da landatua,
Hain handi lur libroan lehen izatua,
Orai gure haritza, zein den murriztua.

Gratien Adema, 1893



Nire aitaren etxea
defendituko dut.

Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,

justiziaren kontra,

defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea.

Gabriel Aresti, 1963

Noiz arte Jauna erbestetuta
sakabanaturik ludian?

Noiz pakean danok batuta
ikusiko gera gure aberrian?

Balendiñe Albizu, 1945

Zergatik (ez) naizen abertzalea

Ez ditut zortzi euskal deiturak.
Ez dut Rh negatiborik nire zainetan.
Ez naiz baserrian bizi.
Ez naiz Ekaingo haitzuloan sartu.
Ez dakit zelan jo trikitixa.
Ez dut harrespilik egin nehoiz.
Ez dut apusturik egiten frontoian.
Ez naiz trebea zortziko-dantzarako.
Ez dut Gernikako arbola ukitu.
Ez ditut arrantzaleen abestiak ezagutzen.
Ez ditut txikitan janzten nituen kaikuak aurkitu.
Ez dut arrano beltzik marrazten.
Ez dut ikurrinik kulunkatzen.

Abertzalea izan ez arren
abertzalea naiz,
Lurreko txoko honetatik
ilargia
nola ikusten den
gustuko izatea
abertzale izatea bada.

Ignazio Aiestaran 2003

Frantziako Iraultzak (1789) aldaketa izugarria ekarri zuen Europako herrietara. Askatasun kolektiboa lortzeko irrika sortu zuen, eta aberriaren sentimendua nagusitu zen hainbat lurraldetan. Gaztelaniako unitatean ikusi duzuen moduan, Erromantizismoak subjektibitatea aldarrikatzen zuen, gizaki guztiek beren identitatea zutela uste baitzuten. Izan ere, arrazoi



berberagatik poeta erromantikoek herri-hizkuntza erabiltzea erabaki zuten, herrialde, nazioa, aberri bakoitzean berea. Beraz, Euskal Herrian, euskaraz.

Jarduera honetako bost olerkietan ikusten duzuenez, aberria mendeetan zehar izan da poeten kezka. Olerkari bakoitzak bere ideiak ditu aberriaren inguruan.

Taldeka, aukeratu bost olerkietatik bat, eta sakonki aztertu. Horretarako lagungarri izan dakizueke ondorengo taula betetzea. Gero, talde bakoitzak azalduko du aztertutakoa irakaslearen eta gelakideen aurrean.

OLERKIA:	
Idazlea	
Gaia	
Idazleak esaten duena	
Idazleak esan nahi duena	
Errekurtso literarioak	
Aukeraketaren zergatia	

14. jarduera. Altxorraren bila.

Binaka bildurik aurkitu altxorra galderen erantzunek ematen dituzten datuak erabilia.



1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12
 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24

★Nongo tronpeta da Euskal Herriko poeta? ⁴ ☐ _____ koa.

★ *Bultzi Leyotik* idatzi zuen olerkariaren abizena: ¹³ ¹¹ ²³

★ Hitzen ohiko ordena aldatzea: 7 24

★ Kasteroren emaztea: 5 18 6

★ *Hondartza eta Itsasoa* olerkiaren lehen hitza:

9

22

★ "Denbora aurrera doa": 8 21

★ Iparragirrereren izarraren izena: ¹⁷ ³

★ Euskaraz inprimaturiko lehen liburua: _____ ²

★ Barakaldoko euskaldun berriaren euskaltegia: 1

★ Inork agintzen ez diolako maite duenaren abizena:

10 ☐ 14 ☐

★ Ignazio Aiestaran dena edo ez dena: ☐ ¹⁹

★ Euskara jalgi ¹⁶ ☐ ___ ___ ___ mundura!

15. jarduera. *Mendigoxaliarena*.

Estepan Urkiaga *Lauaxeta* (lau haizetara) baserrian bizi zen, eta hortik hartu zuen ezizena. Bizitza laburra izan zuen (32 urte zuela Gerra Zibilean hil egin zuten Gasteizen), hala ere, hamaika olerki idatzi zituen mendebaldeko euskaran. *Mendigoxaliarena* Gerra Zibilaren (1936-39) denboran idatzi zuen. Lauzpabost kideko taldeak egin eta erantzun: Zer kontatzen du Lauaxetak olerki honetan? Nor da protagonista? Zer gertatzen da amaieran?

Mendi eze, ikurrin eder,
azke nai zattut axian.
Amar gasteren lerdena
makilla luzez bidian!

Mendi-bitxidori berdiok,
arin or duaz kantari:
«Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari».

Eta ixil dago arratsa
Euzkadi'ko lur-ganian.
Amar gasteren lerdena
makilla luzez bidian!

Gastedi orren didarra
bai-dala didar zolija!
Aberri baten samiñez
urduri dabil errija.

Azkatasun-goxalderuntz
sugarra dira basuak.
Sugarra basuak eta
zidar argi

Or duan ozte-aldea
aberri-minez kantari:
«Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari».

Gaste orreik goruntz duaz
abesti eta ikurriñez.
Lañuan baño tiro otsak:
bedartza dager odolez.

Ikaraz duaz usuak,
mendija dago ixillean,
Amar gasteren lerdena
bixitza-barik lurrean!

Eta illuntziko bakian
norbattek darrai kantari:

«Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari».



Gastelaniako unitatean Federico García Lorcaren *Poeta en Nueva York* bildumako olerkiren bat irakurtzeko aukera izan duzue. Lorca eta Lauaxeta fusilatu egin zituzten Gerra Zibilean. Baina ez dira hemen bien arteko berdintasunak amaitzen. Bi poetei buruzko informazioa bildu, eta aurki itzazu hiruzpalau antzekotasun.

4. LAN-SEKUENTZIA

POESIA SOZIALA

16. jarduera. *Ez naiz isilduko.*

Irakur itzazue ondorengo olerkiak. Erreparatu Gabriel Arestik eta Gotzon Barandiaranek adierazten dutenari.

Egia bat esateagatik,
alabak
hil behar bazaizkit,
andrea
bortxatu behar badidate,
etxea
lurrarekin
berdindu behar bazait;

Egia bat esateagatik,
ebaki behar badidate
nik eskribitzen
dudan
eskua,
nik kantatzen
dudan
mihina;

Egia bat esateagatik,
nire izena
kenduko badute
euskal literaturaren
urrezko
orrietatik,
inoiz,
inola,
inun
eznaiz
isilduko.



Gabriel Aresti 1963

Zabaldutxo
iruntzi dana
berba gaiztorik
esan ez dagizun
zarratuko dizut bizia

Zein gozoa den pozoia
erreinua oraleku duenarentzat

Zabaldutxo
iruntzi dana
berba okerrik
idatzi ez dagizun
luzatuko dizut bizia

Zein gozoa den pozoia
tronua oraleku duenarentzat

Zabaldutxo
iruntzi dana
berriz berbarik egin ez
dagizun
ukatuko dizut bizia

Haserretu zaitez
egin gedar
irriz duzu heriotza

Gotzon Barandiaran, 2007



Binaka erantzun ondoko galderari:

Zertaz ari dira?	
Zer bizipen uste duzu izan duela bakoitzak olerkiak noiz idatzita dauden kontuan izanik ?	
Zuen iritziz, zertarako idatzi dute olerkia?	


17. jarduera. Protesta-poesiaren aldarrikapenak.

Hona hemen olerki batzuk. Guztiak txertatzen dira poesia sozialean edo protesta-poesiaren barruan kexati agertzen dira olerkariak, zerbaiten aurka protesta egiten dute, eta, noski, zer edo zer aldarrikatzen dute.

Lauzpabost taldetan saia zaitezte olerkietan adierazten dena azaltzen adibidean ikusten duzuen moduan. Gero talde bakoitzaren ekarpenak bildu eta eztabaidatu denon artean.

Soneto bat egidazu
bi hizkuntza ofizialetan idatzirik
ea honela bake prozesuan
zerbait aurreratzen dugun.
Etsipenean erortzen dira.
Kalteak ordaintzea ezinbestekoa ez dela
ez dakite belaunaldi berriek.
Horregatik nahiago ditut fakturak,
Brooklyngo loft batean
bizi naizelako aspaldi.

Castillo Suarez, 2000



Olerkaria Euskal Herritik urrun bizi da, Beraz, hemengo bake prozesuaren inguruko gertakariak beste modu baten ikusten ditu, ikuspuntu zabalagoa baitu. Orain arte gertatutakoak alde batera utzita, lortu nahi denari heldu eta aurrera egitea proposatzen du.

TXORI MIGRARIAK

Heldu eskutik
eta erakutsi
hego barik
nola ihes egin

Esan ama
atzoko gabaz
malko barik
gelditu nintzan ta

Zenbat errugabeko
gose gabeko txori migrari
kabia eginda
ikusi ezin da bizi zaigun


Esan ama
atzoko gabaz
malko barik
gelditu nintzan ta

Nola ihesi doaz
urrezko lorak amets eginda
jada jakinda
ni zure bila nabilela ta

Heldu eskutik
eta erakutsi
hego barik
nola ihes egin



Kemen Lertxundi, 2008



Txori migrariak:




ZOTINA

...Ondoei bizi gara iraultzaileak izateko.
Jantzi eta erantzi, arropak legez
etzaten gara aitzakietan zein aulkietan,
eskegitzen gara armairuetan edo etorkizunetan,
bat baino gehiago direnez gure etorkizunak.
Eskubideak zergen ordaina direla
aldarrikatzen dugu bazkalorduetan,
suzko barrikadak bustitzen ditugu tabernetan.

Baiezkoan nengoen
baina ez dut zuek bezalakoa egiten nauen ezer,
etsi dut eta banoa,
ardura guztiak zuentzat.

Gotzon Barandiaran, 2008

Zotina:



Egun batean jakinarazten dizute

Egun batean jakinarazten dizute
lagunak ezezagunak direla
zurekin bizi direnek ezagutzen ez
zaituztela
gezurrezko ametsen bila zabiltzala
sortu zintuenaren esperimentu bat
besterik ez zarela

leku bat eta aro bat egokiarazi
zizkizula
asmatutako errealitate batean
sarturik
haren baldintzapean existitzeko
kaiolako espazioaldean mugaturik
dagoen txoriaren moduan
bizirik irauteko senak baino ez
zaituela gidatzen
nahiz eta helbururik ez eduki
egun batean jakinarazten dizute
libre zauden arren ez zarela libre.

David Tijero, 2001



Egun batean jakinarazten dizute:



Horma zuriak

Mundua kolorez pintatzen saiatu ginenean,
zuok, mundu gris aseptikoa maite dutuenok,
makilkadez ordaindu zeniguten ahalegina.
Zuok, horma zuriak maite dituzuen horiek,
zer bilatzen duzue zehazki?
Zer bilatzen duzue, zuon polizia, epaile
eta kale garbitzaileekin?
Ez al duzue ulertu, urez garbitzen diren margoketek
harrian (eta herrian) arrasto sakona uzten dutela?
Ez al duzue ulertu loreak moztu daitezkeela,
baina udaberria ezin dela gelditu?
Ez al duzue ulertu, kale poeta eta margolariak
ezin direla isildu?
Ez al duzue ulertu, horma zuriak maite dituzuenok,
ez dela horma zuririk existitzen?



Eneko Barberena, 2004

Horma zuriak:



Europa (Antiutopia)

Mugarri bat jarri genuen atarian
Eta mugarriaren parean harresia
Eta harresiaren gainean arantzak
Ez zedin beldurra gure etxaldeetan sar
Ez ziezaieten gaueko basa-piztiek
gure sutondoei, gure ortuei
gure emazteei kalterik egin
Mugaz haraindi gera zitezen iluna
eta ilunaren kedarraren morroiak
Ez zitzaten beleek gure umeak iratzar
Euren sehasken kulunkan egin zezaten amets
Euren arimen graziak biziraun zezan
Harresitik kanpo utzi genuen jainkoen amorrua
Ez gintzaten ekaitzek ikara
Ez zezaten etsaien geziek gure larrua urra
Ez zitzan gure lurrak kimu arrotzak erna
Guk ereindakoa baino ez zedin haz
Zazpi sarrailekin itxi genituen
gure erresumako atari eta zeruertzak.
Begira zure ingurura, ene seme. Ikusten?
Gure izerdiaren fruitua da dakusazun guztia
Hau da gure herria, gizon egiten gaituena
Hau da gure odolaren odola, biziraungo duena
Hau da gure haragi eta hezurren aldare
bedeinkatua
Hau da guri agindutako lurra
Gure errauts zuri orbangabeei lur emango diena.

Jon Gerediaga, 2007



Europa:



18. jarduera. *Zapalduen olerkia.*

Seguruenik denok ezagutuko duzue Ken Zazpiren *Zapalduen Olerkia*, baina ba al dakizue zer aldarrikatzen duen?

Herri ikustezin hontan
itzalekin jolasten
neu izaten saiatzen,
geroa margozten.

Nire ezintasun denak
behin da berriz kantatzen,
egunsentia hurbilao sentitzen.

Denok ez dugu berdin
kontatzen istoria,
zaila da ulertzea
bestearen egia.

Baina kantatu nahi dut
zapalduen olerkia,
estalita duten samin guztia.

Ohe hutsei, amaren malkoei,
lapurtzen diguten denbora
iheskorri,
burdin hotsei, aitaren
beldurrei,
sufritzen dugunoi...

Txikitatik entzuten
zer izan behar garen,
indarrez inposatuz
zer maitatu behar den.

Herri ikustezin hontan
itzalekin jolasten
neu izaten saiatzen,
geroa margozten.

Baina kantatu nahi dut
zapalduen olerkia,
estalita duten samin guztia.

Lagun minei, bakardadeari,
bizigabe utzitako une bakoitzari,
izan zirenei, gaur garenari,
izango direnei...

Esaidazu maitea
dena aldatuko dela,
bihar ere nirekin egongo zarela
eta ondorengoek
ez dutela sekula kantu hau
kantatuko,
malkorik botako, esan maitea...

Esan laztana
entzun nahi dudana
esan laguna.

Istripuei,
berri txarrei,
bidean galdu ditugun lagun guztiei,
gugatik dena eman dutenei,
askatasun haizeari, zuei, haizeari,
zuei, zuei, zuei...



Ken Zazpi

Ken Zazpi bezalako talde eta abeslariak
antzerako aldarrikapenak egiten dituzte
euren abestietan. Saia zaitezte pare bat
adibide gelara ekartzen, ahal izanez gero,
hizkuntza desberdinetan



5. LAN-SEKUENTZIA BIDEO-KLIPA

Sekuentzia honetan bideo-kliparen oinarri izango den olerkia idatziko duzue. Dakizuenetz, beste unitateetan ikasi baituzue, testu edo olerki on bat idazteko aurre planifikazio egokia behar da.

19. jarduera. Egunerokoak.

Olerki hauetan ikusten duzuenetz, edozein gauzaren inguruan idatz daiteke. Binaka irakurri eta ahoz erantzun galderei:

Kristal garbitzailea

Hiriko etxe handi batean andamiaoa
andamio gainean kristal garbitzailea

Lehioaren barrukaldean andere bat negarrez
badirudi kristal garbitzaileak
painua kristalean pasatzean
lehunki lehortzen dituela
anderearen malkoak

Joseba Sarrionaindia,



zure bihotzaren habarrotsa

Amets goxo baten murgilduta
nengoela, entzun dut dunbotsa;
baina laster aditu
dut zure eztizko ahotsa.

Lo egin ezin dudanez, altxatu
eta egin dut ilean mototsa;
sukaldera joan baino lehen
agurtu dut zure kokotsa.

Sukaldean esnea hartu dut,
baso bete esne mingotsa;
ondorioz, barne-barnetik atera zait
azkagarritasunaren hotsa.

Ohera bueltatu naiz, entzun dut ta
zure bihotzaren habarrotsa;
zure besoetan ahaztu nahi dut
lehengo oihuak sortutako lotsa.



Aizpea, 2007

<http://www.blogari.net/aag?cat=5587>

Ahalik eta

Ahalik eta denbora
gehien
eman nahi du ohean,
ahalik eta energia
gutxien
xahutu,
ahalik eta errealitate
zati
txikienarekin
talka egin.



Eider Rodriguez, 2008

ZERBITZARIAREN KOMERIAK

Zerrikeriaz inguraturik zerbitzen
Ditut ogitarteko infame hauek
Oilasko gorpuak
Komedore zantar hau garbitzen
Nahikoa lan ez duk bada
eta garbitzen saia hadi mundua!

Agurtu gabe alde egiten diate
Hiretaz interesa erakutsi ondoren

Zertaz elikatzen haiz
Hainbeste biderkatzeko?
Zer haiz zer izen duk:

Maitagarri ala mesedegile? ...

Jon Arano, 1991

BOST ARRAZOI

Badira bost arrazoi bertutetsu jokatzeko
(Lehena, bigarrena, hirugarrena, laugarrena, hura)
Eta bost arrazoi badira bekatuan aritzeko.

Badira bost arrazoi pozari eusteko
(Lehena, bigarrena, hirugarrena, laugarrena, hura)
Eta bost arrazoi badira oinazeak jota erortzeko.

Bost arrazoi badira berbetan igeri egiteko
Eta beste hainbeste behin betiko isiltzeko.
Bost burua botatzeko eta bost bizirik segitzeko.
Badira bost arrazoi mila kilometro korritzeko
Eta beste hainbeste lekuan geldi geratzeko.

Galdera bakoitzak badu bere erantzuna
Eta igande orok dagokion kantua.
Eguzkian bilatzen duenak
Ez du bi aldiz abestuko.

Jon Aiastui, 2004

- ✓ Zertaz ari da olerki bakoitza?
- ✓ Irudika zenitzake bertan kontatzen direnak?
- ✓ Fotograma edo irudiren bidez olerkiak dioena adierazten saiatu.
- ✓ Gelako hormak irudiekin hornitu.


20. jarduera. Ni, poeta.

Aurreko jardueran olerkian adierazten dena filma batean bezala ikus daitekeela ikasi duzue. Oraingo honetan zuek jarriko dituzue irudiak hitzetan. Hona hemen olerkia idazteko gomendioak:

OLERKI BAT IDAZTEKO GOMENDIOAK

- ❖ **Gaia aukeratu:** olerkietan beti gai bat agertzen da eta poetak gai horren inguruan dituen iritziak, sentimenduak, bizipenak etab.
- ❖ **Helburua zehaztu:** nora zoazten jakin ezean, nola helduko zarete, bada? Edozein proiektu ekoitzi baino lehen, *zer?*, *nola?* eta *norentzat?* zehaztu behar dira. Olerkiak idaztean ere bai.
- ❖ **Aldendu sentimentalismotik:** olerkia oso tristea bada, esate baterako, entzuleek ez diote esan nahi duzuenari erreparatuko, tristurak estali egingo baitu. Nahikoa izango dute entzuleek euren emozioak kontrolatzearekin.
- ❖ **Hitzekin irudiak egin:** saia zaitezte margolan bat egiten hitzekin. Poeta ospetsu batek esan zuen behin: *olerkiak sei zentzumen estimulatu beharko lituzke*. Zuek, entzumena, ikusmena eta beste sentimenduren bat piztea lortzen baduzue... OSO ONDO!
- ❖ **Lexikoa:** gogoratu gaiaren inguruko hitz zerrendak egitea oso lagungarri izan daitekeela. Hitz laburrak erritmo biziagoa ematen diote poemari eta sarri errimarako errazagoak izaten dira.
- ❖ **Erabili irudi literarioak:** metaforak, aliterazioak etab., olerkia dekoratzen lagunduko dizute.
- ❖ **Berrirakurri eta berridatzi:** olerkia idatzitakoan, erakutsi etxekoei edo beste taldeetako kideei; sarritan, idazketan murgilduta olerkia zaudetenean ez duzue begi bistakoa ere ikusten. Idatzi, eta hurrengo egunean ere berririo irakurtzen baduzue egin honako galdera hauek: Olerkia ulertterraza ala zaila egiten da? Ondo adierazita dago esan nahi duguna? Zer hobetu daiteke?...

Olerkia irakurri dutenen iritziak jaso . Ez onartu *Oso polita* bezalakoak, ez baitute hobetzen laguntzen.




Hiru kideko taldeak osatu bideo-klipa egiteko. Lehenik eta behin olerki laburtxoak egingo dituzue gai konkretu baten inguruan. Azken ekoizpenerako, berriz, zuek aukerako dituzue bai gaia bai olerkiaren luzera.



Olerkiak idazteko gomendioak kontuan harturik, saia zaitezte poema laburtxoak idazten. Musika hasieratik aukeratuz gero, errazago egingo zaizue asmatzea, bertsolaritzan gertatzen den bezala.

Hona hemen bi poema idazteko proposamenak. Hautatu bat eta erakutsi zuek ere poetak zaretela.



Ura tituludun olerkia idatziko duzue oraingoan. Lau lerrotan, uraren bidez sentrazio atseginak eta pozgarriak sor ditzakezue.



URA



Saia zaitezte oraingo honetan *tuenti*, *hi5*, *facebook* eta horrelakoen inguruko olerki bat idazten.



Talde bakoitzak olerkitxo bat egin du dagoeneko. Beste talde batek egindakoa jaso eta zuzenduko duzue. Ondorengo taula zuzenketan lagungarri izango zaizue. Gogoratu iradokizunak oso garrantzitsuak direla berrikusketa prozesu honetan, bai/ez soilik erantzuteak ez du mesederik egiten olerkia hobetzerakoan. Beraz, ahalik eta zorrotzen zuzentzen saiatzeaz gain, egin beharreko iradokizunak argiak eta zehatzak izan daitezela.

KONTROL-ORRIA:		
OLERKIAREN IZENA:		
IDAZLE TALDEA:		
ZUZENTZAILE TALDEA:		
	BAI/EZ	IRADOKIZUNAK
★ Gaiari heldu dio		
★ Olerkia ulertterraza da		
★ Irudi literarioak agertzen dira		
★ Sentimenduak sortarazten ditu		
★ Gustatu zait		Zergatik?:



Egin itzazue besteek proposaturiko aldaketak. Gero, gela-kide guztien aurrean ozenki irakurriko duzue azken bertzio hori.

21. jarduera. Hitzak eta musika.

Orain arte egindako guztiarekin olerkigintzaz nahikotxo ikasi duzuelakoan gaude. Zenbait olerki musikarekin landu dituzue, eta zaila egingo zaizue olerki bera beste musika batekin imajinatzea.

Zuen txanda da orain. Hiru kideko taldeetan honako hau egingo duzue:



- ✓ **Olerki bat idatzi.** Aurretik emandako aholkuei jarraituz, gaia ondo pentsatu, gaiarekin zerikusia duten hitz zerrendak egin, bertsoetan bezala errima erabili, etab.
- ✓ **Irudien bidez adierazi,** filmetako fotogrametan egiten den bezala.
- ✓ **Musika jarri.** Musika egokia, edo behintzat, olerkiarekin bat doana aukeratzea oso garrantzitsua da.
- ✓ **Prozesu guztiaren kronika (*making of*).** Gogoratu kronika izanik, narrazio-testua dela. Beraz, zati hau egitean narrazioaren ezaugarriak kontuan izan: denbora adierazleak, lokailuak, kronologia, etab. (Ikusi *Kazetaritza lanbide* edo *De profesión, periodista*).
- ✓ **Bideo-klipa egin.** Hauxe izango da unitatean zehar egindako lana biltzen duen azken ekoizpena.

Bideo-klipean azalduko dira olerkia, irudiak eta musika, modu esanguratsuan eta entretenigarrian, noski.



Hau guztia egiteko ordenagailua, bideo kamara eta argazki makina erabili.

Har ezazue, beraz, Joseba Sarrionaindiak eta Jon Aiastuik luzatzen dizueten testigua. Irakurri eta abia zaitetzte!

...eta, orain,
lore jokoan ondoren,
zer iruditzen zaizue poesia egiten hasten bagara?

Joseba Sarrionaindia



We want poems we can understand
Paul Hoover, bariazioa

Ulertzeko moduko poemak nahi ditugu.
Infiniturik gabe, eta ahal dela laburrak.
Ez hiztegi museoetan gordetzen direnetakoak,
Gogoan geratzen diren horietakoak baizik.
Berdin zaigu nola abesten duen txoriak,
Kantatzeko moduko poemak nahi ditugu.
Trenez, haserrez, umorez beteak. Gordinak,
Zintzoak, zaharren azken hitzen antzekoak.
Lagunduko gaituzten poemak nahi ditugu,
Bizitzen eta hiltzen, ikusten eta egoten.
Entretenituko gaituzten poemak nahi ditugu,
Oherako modukoak, pelikulen antzekoak,
Haizerik gabe, itsasorik gabe, eta ulergarriak,
Ulertzeko moduko poemak nahi ditugu.

Jon Aiastui, 2004

Lanean



Bideo-klipa eta *making of* edo bideo-kliparen kronika ekoizteko prozesua burutu duzue. Orain, beste talde batekin aldatuko duzue egindako lana eta hurrengo koadroko zuzenketa-irizpideak kontuan hartuz txantiloia beteko duzue. Amaitzeko, irakurri zuzenketa eta zer edo zer hobetzerik badago zuzendu. Irakasleak batuko ditu azken gain-begiradaxoa emateko; eta ondoren, denon aurrean aurkezteko prest egongo da.

	ZUZENKETA-IRIZPIDEAK	BAI/EZ	IRADOKIZUNAK
OLERKIA	• Idazleen helburua argia da. • Ulerterraza eta esanguratsua da. • Euskara batuan idatzita dago. • Unitate honetan ikasitako baliabide literarioak agertzen dira. • Irudietan jartzea konplikatua izan da.		
MAKING OF (kronika)	• Era polit eta entretenigarrian kontatzen da. • Kronologikoki kontatuta dago. • Hizkera bizia eta jatorrean kontatuta dago; lexiko, adierazle eta aditz denbora egokiak. • Diskurtsoa egoki lotuta dago; lokailuak, testu-antolatzaileak...		
BIDEO-KLIPA	• Irudiak bat datoz olerkian esaten denarekin. • Musika egokia aukeratu da. • Teknikoki ongi egituratuta dago. • Interesgarria, polita eta ongi egina oro har.		

Auto-ebaluazioa

UNITATEA BALORATZEKO GALDEKETA

1. Unitate honetan ikusitako edukiak interesgarriak aurkitu dituzu? Baloratu Otik-5era
 - Gaiak olerkigintzan 0 1 2 3 4 5
 - Olerkiak irakurri 0 1 2 3 4 5
 - Ozen irakurri 0 1 2 3 4 5
 - Topiko literarioak 0 1 2 3 4 5
 - Irudi literarioak 0 1 2 3 4 5
 - Olerkiak idatzi 0 1 2 3 4 5
 - Azken ekoizpena 0 1 2 3 4 5
2. Zure ustez, ba al da gehiago landu beharko litzatekeen edukirik? Aipa itzazu.
3. Zein jarduera kostatu zaizkizu gehien?
4. Zein jarduera kenduko zenituzke?
5. Azken ekoizpena prestatzeko laguntza eta informazio nahikoa izan duzu?
6. Aipa itzazu unitate honetan ikasitako eta zure ustez baliagarriak diren edukiak.
7. Nola baloratuko zenuke amaitu berria duzun unitatea?
 - Unitatearen edukiak 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
 - Erabilitako metodologia 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
 - Erabilitako materialak 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
 - Saioen erritmoa 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
8. Zure ustez nola hobetu daiteke unitate hau?
Iradokizunak: